



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

192. INFORMAZIO BULETINA

2023ko abendua



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea



2023ko abendua

ALBISTEAK

Toki-erakundeek gazteak kontratatzekeo laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko EGEF Plus 2021-2027 Programaren esparruan.

2024ko deialdiak 8.000.000 euroko aurrekontua du, eta deialdiaren xede diren kontratuak Europako Gizarte Funtzarekin kofinantzatu ahal izango dira.

Abenduaren 4ko EHAAn (231. zk.), 2024ko ekitaldiko laguntzen deialdia argitaratu da, toki-erakundeek gazteak kontratatzekeo, Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren barruan. Deialdi horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan eta Gazteen Berme Sistemari izena emanda dauden gazte langabeak kontratatzeagatik emango zaizkien laguntzen oinarriak ezartzea eta laguntza horiek arautzea, esperientzia profesionalaren bitartez gazte horien enplegarritasuna sustatzeko neurri gisa.

Baldintza hauek bete behar dituzte kontratazioek:

- a) Onura publikoko edo interes sozialeko jardueren alorrean egin behar dira, toki-eremuan.
- b) Kontratazio horien bidez ez dira ordeztu behar erakunderen baten egiturazko lana egiten duten langileak.
- c) Toki-erakundeek ezin izango dituzte pertsona jakin batzuk kontratatu; hain zuzen ere, erakunde berak, 2023ko ekitaldiko Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 Programaren esparruan, gazteak kontratatzekeo laguntzen deialdietan kontratatutako pertsonak edo 2023ko ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdietan kontratatutakoak.
- d) Kontratuak 8 edo 12 hilabete iraungo dute eta enplegu-politika aktiboko programei loturiko kontratuen bidez formalizatuko dira (405 kontratu-kodea).
- e) Kontratuak lanaldi osorako izango dira.
- f) Kontratatutako pertsonak bere kualifikazio-mailari dagokion lanpostu bat bete behar du.
- g) Erakunde onuradun bakoitzak gehienez 70 kontraturengatik jaso dezake dirulaguntza.

Laguntza horiek jaso ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko mankomunitateek, kuadrillek eta udalerriek, edo horien mendeko toki-garapenekeo agentziek, baldin eta nortasun juridikoa badute.

Eskaerak aurkeztekeo epea 2024ko irailaren 30ean amaituko da.

Informazio gehiago: [2024 deialdirako esteka](#).



2023ko abendua

Europako funtsak Gipuzkoan webgunea eguneratu da.

Edukia 2021-2027 epealdira egokitu da, eta iruzurraren aurkako neurriei buruzko atal berri bat sartu da.

2021-2027 epealdia hasi ondoren, webgunearen edukia eguneratu da. Bertan, Europako Batasunaren inbertsioek aldi berri honetan bultzatuko dituzten helburu nagusiak jasotzen dira. Era berean, Eskualde Garapeneko Europako Funtzari (EGEF) dagokionez, Euskadiko 2021-2027 EGEF Programari buruzko informazio orokorra aurki daiteke, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak haren bidez kofinantzatuko dituen proiektu zehatzei buruzkoa ere.

Nabarmendu behar da iruzurraren aurkako neurriei buruzko atal berri bat sartu dela, Aldundiak hartutako neurriei buruzkoa, honako hauek barne:

- Erakundearen Zuzentasun Sistema.
- Diputatuen Kontseiluak onartutako iruzurraren aurkako plana.
- Diputatuen Kontseiluaren adierazpen instituzionala.
- Iruzurrak eta irregulartasunak salatzeko bideak.

Web orriak Gipuzkoari eta Europar Batasunari buruzko berriak jasotzen dituen atal bat ere badu. Besteak beste, Next Generation funtsekin finantzatutako deialdiei buruzko informazioa argitaratzen da ostiraletan. Aukera dago aktualitatea **harpidetza baten** bidez jasotzeko.

Informazio gehiago: **Europako funtsak Gipuzkoan** webgunea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan hiri-eremuetatik kanpoko kultura eskaintza handitzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak ematea (2023ko deialdia).

Diru-laguntzak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 24. osagaiaren barruan kokatzen dira.

Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak, 479/2023 foru aginduren bidez, erabaki du 93.275 euroko diru-laguntzak ematea, hiri-eremuetatik kanpoko kultura eskaintza handitzeko eta dibertsifikatzeko.

Esan beharra dago, 2022an beste diru-laguntza deialdi bat egin zela eta 101.398,62 euroko diru-laguntzak eman zirela. Guztira, aldundiak ia 195.000 euroko diru-laguntzak banatu ditu.

Informazio gehiago: **2023ko deialdiaren ebazpena**.

Berreskuratze Plana gauzatzeari buruzko IV. Txostena.

Jasotako 37.000 milioien %90 esleitu da.

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren web-orrian Berreskuratze Planaren IV. gauzate-txostena argitaratu da. Bertan zehatz-mehatz zehazten dira planaren betearazpenean izandako aurrerapenak, bai eta Espainiako ekonomiaren hazkundean eta eraldaketan izan duen eragina ere.

GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Organismo de Fomento
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas



Europar Batasunak
kofinantzatua
Cofinanciado por
la Union Europea

2023ko abendua

Era berean, I. eranskinean autonomia-erkidego bakoitzari esleitutako funtsen xehetasuna jasotzen da.
Informazio gehiago [***IV Gauzatze txostena***](#) (gaztelaniaz).



2023ko abendua

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

2023ko ekitaldian, handitu egin da lurralde-berrikuntzarako eta jarduera sozioekonomikoa suspertzeko eta despopulazioaren aurka borrokatzeko toki-erakundeek sustatutako proiektuak finantzatzeko laguntzen deialdian hasieran finkatutako zenbatekoa. Zenbatekoaren gehikuntza 869.568,00 eurokoa da, eta gututzko zenbatekoa 17.103.998,00 eurokoa izango da.

Luzatu egiten da apirilaren 24ko TED/408/2023 Aginduaren bidez deitutako laguntzak ebazteko epea. Agindu horrek aldatu egiten du TED/1014/2021 Agindua, bioekonomia sustatzeko proiektu eraldatzaile zientifiko eta tekniko handiei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dituen, bai eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 2023ko ekitaldiko trantsizio ekologikorako ekarpena ere. Epe hori 2024ko apirilaren 1era arte luzatzen da.

Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak bigarren aldiz gehitzea erabaki da.

Onartzen da hirugarrenez aldatzea energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegitazeari eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programaren dotazioa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU).

Dirulaguntzen bigarren deialdia (2023), uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuen norgehiagokarako (uraren zikloaren digitalizazioa), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (TED/919/2023 Agindua). Eskaerak aurkezteko epea 2023ko abenduaren 22ra arte luzatzen da, egun hori barne.

2021eko uztailaren 5eko Ebazpena seigarrenez aldatzea erabaki da. Ebazpen horren bidez, mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarrien programaren oinarri arautzaileak onartu, deitu eta argitaratu ziren, Europar Batasunak finantzatutako Europako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan – NextGenerationEU (Moves III programa).

Turismo-sektorerako deitutako laguntza jakin batzuk gauzatzeko epeak luzatzea, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (2. xedapen gehigarria).



2023ko abendua

Araudi erregulatzailerak aldatzen da, eta Estatuaren laguntzen Europako esparrura egokitzen dira Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko energia-birgaitze programarako eta energia berriztagarrietarako laguntza-programa jakin batzuk.

Autokontsumoari eta biltegitzeari lotutako pizgarrien programaren indarraldia luzatzea adostu da, energia berriztagarrien iturriekin, bai eta sistema termiko berriztagarriak ezartzea ere bizitegi-sektorean, Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoa duten udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikorako dirulaguntzen programa (PREE 5000 programa), Hiria Birgaitzeko eta Birsortzeko Planaren eta Energia Berriztagarri Termikoen Instalazioak Ekonomiaren hainbat sektoretan ezartzeko Pizgarrien Programaren berronertze eta erronka demografikoaren Programaren barruan, hori guztia Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren – NextGenerationEU – esparruan.



2023ko abendua

BESTE DEIALDIAK

Creative Europe. Kultura atala.

- **LIVEMX.** CREA-CULT-2022-MME. "Musikak Europa mugitzen du" azpiatala (MME). Musika-espertaziorako, zuzeneko musika-esparruetarako, banaketa eta bezero harreman digitalizatueterako laguntzak. Hurrengo epea, 24.1.7.
- **CREA-CULT-2024-COOP-1, -2.** Eskala txiki eta ertaineko lankidetzak. Lankidetzak-proiektuetarako laguntza. 2 deialdi tamainaren arabera. Hurrengo epea, 24.1.23.
- **CREA-CULT-2024-PECE.** Paneuropear kultura-erakundeentzako laguntzak (PECE). Hurrengo epea, 24.1.31.
- **CREA-CULT-2024-PLAT.** Gorabidean dauden artistak sustatzeko Europako plataformak. Hurrengo epea, 24.1.31.

IMCAP. Nekazaritza-politika bateratuari buruzko informazio-neurrietarako laguntza.

- **IMCAP-2024-INFOME.** Hurrengo epea, 24.1.9.

EURATOM. Energia nuklearraren Europako programa. SOFT (Fusio Teknologiaren Sinposioaren) Berrikuntza Saria.

- **EURATOM-2024-SOFT-Prize.** Hurrengo epea, 24.1.16.

SMP-COSME. Merkatu Bateraturako Programa - ETEen lehiakortasuna. Klusterrei eta partzuergoei laguntzeko atala. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.

- **PIMAP4Sustainability.** Nazioarteko merkatuetarako eta iraunkortasunerako aplikazioetarako fotonika-partzuergoa. Trebakuntza eta zerbitzuen deialdia. Hurrengo epea, 24.1.11.
- **EU Rural Tourism.** Landa eremuko turismoa. ETEentzako deialdia. Hurrengo epea, 24.1.16.
- **AIBC Euroclusters.** AIBCrekin klusterrentzako laguntza (Adimen Artifiziala, bloke-kateekin zifratzeko blockchain teknologiarekin konbinatuta). Ekitaldietan parte hartzeko eta produktuak digitalizatzeko eta garatzeko zerbitzuetarako deialdiak. Hurrengo epea, 24.1.16.
- **Smarter AOE.** Turismoa digitalizatzeko laguntzak era "adimentsuagoan" (smarter) Danubio eskualdeko proiektuetan, AOE ("Europako Amazonia") . Hurrengo epea, 24.1.15. TOURINN-01-2020.
- **EUDigiTour.** 4 estatu kidetan kokatutako proiektuetan turismoa digitalizatzeko laguntzak, Hurrengo epea, 24.1.16. TOURINN-01-2020.



2023ko abendua

Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programa.

- **AEROS.** Europako metasistema operatibo autonomo, eskalagarri, fidagarri eta adimendunerako elkarlan teknologikorako laguntzak, IoT-Edge-Cloud katerako (gauzen Interneteko teknologia, hodeiko konputazioa eta erabiltzailearen muturreko konputazioa bateratzen duena). HORIZON-CL4-2021-DATA-01-05. Digitalizazio, industria eta espazioko 4. klusterra. Datu-teknologien atala. Hurrengo epea, 24.1.31.
- **CORTEX2.** Errealitate hedatuko teknologiarako lankidetzaz-partzuergoa (XR). 4. klusterreko teknologia digital sortu berrien eta humanizatzaileen atalak (CL4, digitalak, industrialak eta espazialak). HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-25. Hurrengo epea, 24.1.16.
- **SURE 5.0.** Azelerazio-programa. Europako mugikortasun, garraio eta automozio, aeroespazialeko eta elektronikako ekosistemetan enpresa txiki eta ertainak 5.0 industrian jasagarritasunean eta erresilientzian igarotzeko laguntza-partzuergoa. Europako erresilientzia-errotetarako atala, 4. klusterrarena (CL4, digitala, industrialak eta espazialak). HORIZON-CL4-2021-RESILIENCE-01-29. Hurrengo epea, 24.1.3.
- **ICAERUS PULL.** Dronen aplikazio berriak interes ekologiko eta orokorrerako. PULL atala azken erabiltzaileen sektoreetan eta nekazaritza-, baso- eta landa-errotetan aritzen da. PUSH atala dronen teknologian inplikaturik dauden gainerako erakunde hornitzaileei buruzkoa da. Horizon Europe enpresaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide naturalak eta Nekazaritza. Gobernantza berritzailearen helburua, ingurumen-behaketak eta Itun Berdea babesteko irtenbide digitalak. HORIZON-CL6-2021-GOVERNANCE-01-21. Hurrengo epea, 24.1.16.
- **FORWARDS.** ForestWard Europako baso-behatokirako prototipo-proiektua. 2 deialdi: Europako baso-asaldurak eta epe luzerako klima-inpaktua duten baso-monitorizazioko guneen proiektu pilotuak ezaugarritzea. Horizon Europe enpresaren 6. klusterra (CL6). Elikadura, Bioekonomia, Baliabide naturalak eta Nekazaritza. Klimari lotutako atala. HORIZON-CL6-2022-CLIMATE-01-05. Hurrengo epea, 24.1.16.
- **NutriBrain.** Garunaren zahartzea elikaduraren eta bizimodu osasungarriaren bidez modulatzeko partzuergoa. ERA4Health sareak bultzatuta (Osasunerako Europako ikerketa-arloa). Osasunaren atala eta Horizon Europe-ko gaixotasunen azpiatala. HORIZON-HLTH-2022-DISEASE-03-01. Hurrengo epea, 24.1.15.
- **NANOTECMEC.** Gaixotasunen prebentzio, diagnostiko eta terapiarako nanoteknologia eta teknologia aurreratuetarako partzuergoa. ERA4Health sareak bultzatuta (Osasunerako Europako ikerketa-arloa). Osasunaren atala eta Horizon Europe-ko gaixotasunen azpiatala. HORIZON-HLTH-2022-DISEASE-03-01. Hurrengo epea, 24.1.30.
- **JU-IHI.** Europako baterako zeregina (JU) berrikuntza sanitarioko ekimenerako (IHI). HORIZON-JU-IHI-2023-05-. Hurrengo epea, 24.1.16.
 - -01. Ikuspegi Berriko Metodologiaren eta animaliarik gabeko beste ikuspegi berritzaile batzuen ezarpena azkartzea, osasun-teknologiak garatzeko, probatzeko eta ekoizteko.



2023ko abendua

- -02. Soluzio teranostikoen aplikazio kliniko berrien garapena eta kontzeptu-probak (terapia-diagnostikoa, bereziki erradiofarmakoen bidez edo organismoan partikula erradioaktiboak erabiliz).
- -03. Iragarpenaren, detekzioaren eta tratamenduaren ikuspegi hobetuak, istripu zerebrobaskularra osorik maneiatzeko.
- -04. Osasun-aplikazioetan datu sintetikoak sortzeko ahalmena maximizatzea.
- **HORIZON-CL5-2024-D3-01**. Horizongo energiaren CL5-D3 klusterrerako laguntzak. 5. klusterra (energia, klima eta mugikortasuna). 3. xedea (D3, energia). Hurrengo epea, 24.1.16.
 - -01. Teknologia fotovoltaikoen fabrikazio aurreraturako ekipo eta prozesu alternatiboak.
 - -02. Potentzia txikiko fotovoltaikoa.
 - -03. Garraiorako erregaietarako energia berriztagarriko bitarteko eramaileen teknologia hobetuen erakustaldia.
 - -04. Argia hobeto hartzea eta karbonoa biologia sintetikoarekin eta/edo bide bioinspiratu/biomimetikoekin finkatzea, eguzki-erregai zuzen berriztagarriak ekoizteko.
 - -05. Errekuntza-gas biogenikoetarako karbonoa finkatzeko teknologiak garatzea.
 - -06. Aplikazio berritzaileak/berokuntzaren integrazioa eta hozte geotermikoa industrian.
 - -07. Tresneria hidroeletrikoren garapena, berrikuntza-egoeretan ekipoen eraginkortasun teknoekonomikoa eta erresilientzia hobetzeko.
 - -08. Olatuen energia-instalazio jasangarrien erakustaldia.
 - -09. CL5-D3 ataleko EB-Afrika funts komuneko ekintzak.
 - -10. Energia berriztagarriko teknologien hurrengo belaunaldia.
 - -11. Energia sektorerako adimen artifizialeko esperimendazio eta proben instalazioa (IA-TEF): teknologia merkatura eramatea.
 - -12. Malgutasun-zerbitzuetarako energia-kudeaketako sistemak.
 - -13. Korrante zuzeneko eta korrante alternoko/zuzeneko transmisio- eta banaketa-sistema hibridoak.
 - -14. Banda zabaleko potentziaren elektronikan egoera eta ongizatea monitorizatzea energia-sektorerako.
 - -15. HVAC (tentsio handiko korrante alternoa), HVDC (tentsio handiko korrante zuzena) eta potentzia handiko kable-sistemak.
 - -16. Ponpaketa-bidezko biltegitratze-ekipo eta -tresna berritzaileen erakustaldia, biltegitratze-kudeaketako sistema berritzaileekin konbinatuta.
 - -17. Software aurreratuko tresnak garatzea eta integratzea SCADAko sistemetan (gainbegiratze-kontrola eta datuak eskuratzekoetan), goi-tentsioko, erdi-tentsioko eta behe-tentsioko AC/DC sistema hibridoetarako (korrante alternoa eta zuzena/jarraitua).

“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea